

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure app-a hoberen funtzionatu dezan lan inportanteenak denen artean banatuko ditugu. Gure aplikazioa jendearen artean zabaltzeaz eta honen funtzionamendua egokia dela zehazteaz Asier arduratuko da. App-ak dituzten enprekin harremanetan egotea, Google Play eta Apple Storeekin adibidez, Gabi arduratuko da. Gure bezeroen ongizatea bilatuz, gure email-aren eta telefonoaren arduraduna izendatu dugu Alain, gure bezeroen zalantzak argitzeko edo laguntzeko egongo da. Gure app-a bertan behera gera ez dadin, pertsona bat egongo da app-aren berrikuntzak eta hobekuntzak bilatuz, pertsona hau Gorka izango da

Kontuak eramateko Gabi egongo inbertsioak eta kontabilitatearen arduraduna. Bera arduratuko da diruarekin zerikusia duen guztiarekin. Hilero ordaindu beharreko gauzak bere ardurapean daude, langileen soldatak ere.

App-a martxan jartzean eta diru sarrerak izatean dirua ez dugu guretzako hartuko, aurrerapenak egiteko eta app-a hobetzeko erabiliko dira, gure app-a handiagoa eginez eta mundu guztian zabaltzeko arte.